

MAHAI NAZIONALAREN OSAERA

KOORDINATZAILEAK

MAHAI NAZIONALEKO KOORDINATZAILEA

Joseba Permach. Donostia (Gipuzkoa), 31 urte.

Ekonomialaria. Donostiako zinegotzi ohia

ARABAKO KOORDINATZAILEA

Hasier Arraiz. Gasteiz (Araba), 28 urte. Filologian lizentziatua.

BIZKAIAKO KOORDINATZAILEA

Ibon Arbulu. Bakio (Bizkaia), 33 urte. Euskal Filologian lizentziatua, Bilboko zinegotzi ohia.

GIPUZKOAKO KOORDINATZAILEA

Ainhua Ozaeta. Andoain (Gipuzkoa), 27 urte. Enpresa gestioa. Andoaingo alkateordea

LAPURDIKO KOORDINATZAILEA

Egoitz Urrutikoetxea. Baiona (Lapurdi), 26 urte. Historian lizentziatua

NAFARROA BEHEREKO KOORDINATZAILEA

Jean Claude Agerre. Donapaleu (Nafarroa Beherea), 27 urte. Kimikan lizentziatua

NAFARROA GARAIOKO KOORDINATZAILEA

Juan Cruz Aldasoro. Etxarri (Nafarroa), 31 urte.

Albaitaria. Etxarriko alkate ohia

ZUBEROAKO KOORDINATZAILEA

Aintzina Mazusta. Maule (Zuberoa), 23 urte.

Irakaslea

BARNE LANTALDEETAKO ARDURADUNAK

BARNE ERAKETA

Imanol Iparragirre. Pasaia (Gipuzkoa), 29 urte.

Gizarte Heziketan diplomatua

DIRUZAINNTZA

Jon Gorrotxategi. Beasain (Gipuzkoa), 37 urte.

Psikologoa. Beasaingo zinegotzi ohia eta Batzar

Nagusietako batzarkide ohia

KOMUNIKAZIOA

Juan Jose Petrikorena. Andoain (Gipuzkoa), 37 urte.

Kazetaria. Andoaingo zinegotzi ohia

INSTITUZIOETARAKO POLITIKA

Antton Morcillo. Izatez hernaniarra baina Gasteizen bizi da (Araba), 36 urte. Historian lizentziatua.

Legebiltzarkidea

LANTALDE BEREZITUETAKO ARDURADUNAK

EUSKARA ETA IRAKASKUNTZA.

Anjel Mari Elkano. Errenteria (Gipuzkoa), 43 urte.

Irakaslea. Errenteriako zinegotzi ohia

GIZARTE ETA EKONOMI POLITIKA

Eusebio Lasa. Izatez beasainarra baina Bilbon bizi da (Bizkaia), 38 urte. Ekonomialaria.

NAZIOARTEKO POLITIKA

Joseba Alvarez. Donostia (Gipuzkoa), 42 urte.

Euskara teknikaria. Legebiltzarkidea

KULTURA ETA KIROLA.

Karmele Aierbe. Ataun (Gipuzkoa), 48 urte. Irakaslea.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan biltzarkidea

NAZIO IRIZPIDEAREKIN HAUTATUAK

Itziar Abellanal. Muskiz (Bizkaia), 36 urte.

Sindikalista. Muskizko zinegotzia

Loren Arkotxa. Ondarroa (Bizkaia), 56 urte.

Enpresaria. Ondarroako alkatea

Ainara Armendariz. Iruñea (Nafarroa), 24 urte.

Zuzenbideko ikasketak. Iruñeko zinegotzia

Pernando Barrena. Berriozar (Nafarroa), 35 urte.

Editorea. Legebiltzarkidea

Eider Casanova. Barakaldo (Bizkaia), 26 urte.

Gizarte Heziketan diplomatua. Barakaldoko

zinegotzia

Antton Etxeberri. Donapaleu (Nafarroa Beherea), 24 urte. Teknikari komertziala

Joana Etxebarria. Bilbo (Bizkaia), 22 urte. Irakaslea.

Gazte eta ikasle mugimenduko partaidea

Patxi Goenaga. Mutriku (Gipuzkoa), 46 urte.

Zuzenbideko ikasketak. Langilea

Zigor Gojeaskoetxea. Izatez gernikarra baina

Miarritzen bizi da (Lapurdi), 31 urte. Gizarte langilea

Shanti Kiroga. Uharthe (Nafarroa), 32 urte.

Zuzenbideko ikasketak, egun Foru legebiltzarkidea

Xabi Larralde. Izatez izurarra baina Baionan bizi da

(Lapurdi), 31 urte. Soziologian lizentziatua

Rakel Peña. Gasteiz (Araba), 37 urte. Administratiboa.

Gasteizko legebiltzarkideen koordinatzailea

Iñaki Olalde. Agurain (Araba), 43 urte. Irakaslea.

Agurainen zinegotzi ohia eta Batzar Nagusietako

batzarkide ohia

Arnaldo Otegi. Elgoibar (Gipuzkoa), 42 urte. Filosofia

eta Letretan lizentziatua. Legebiltzarkidea

Gloria Rekarte. Zizur Nagusia (Nafarroa), 42 urte.

Arte Ederretako ikasketak. Amnistiaren Aldeko

mugimenduko partaidea

Julen Zabalo. Basauri (Bizkaia), 43 urte. Soziologoa.

Irakaslea eta idazlea

EMAITZAK

Otegi, bozkatuena

Mahai Nazionala aukeratzeko bozketetan Arnaldo Otegi izan da aldeko boz gehien jaso duen mahaikidea (4.446). Mahaiko eta herrialdeetako koordinatzaileek ere boz kopurua jaso dute (4.356). Zuzenketei dagokienez, Bateginezen oinarritzko testuaren eta horrek onartutako aldaketan aldeko botoak %70etik gorakoak izan dira.

Euskal Herri osokoa

Aurpegi berri ugari izan arren Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako mahaikideak dira berritasunik handiena: Urrutikoetxea, Agerre, Mazusta, Gojeaskoetxea, Etxeberri, Armendariz eta Larralde. Mahaikideen batez besteko adina 34,5 urtekoa da.

ARNALDO OTEGI

Batasuneko bozeramailea

«Globalizazioaren aurkako aitzindaritzan Batasunaren bitartez egin behar da»

«Ezker abertzaleak eskubideei buruz hitz egin du, guztiei buruz: giza-
eskubideak, sozialak,
laboralak...»

ren eta ekologiaren balioak bere egingo dituela eta internazionalismoaren aldeko apustua egingo duela adierazi zuen Otegi. «Globalizazioaren aurkako aitzindaritzan Batasunaren bitartez egin behar da herri honetan neoliberalismoari aurre egiteko eta gizarte justuago bat eskaintzeko», nabarmendu zuen.

Eskubide guztiak, euskal herritar guztientzat

Azkenik, hirugarren konpromisoa bakearena izan zen. Irtenbide demokratikoa eskubideen inguruan antolatu behar dela uste du Batasunak, honako premisaren arabera: eskubide guztiak, euskal herritar guztientzat eta Euskal Herri osoan. Horren haritik, Otegi iragarri zuen Batasunak eskubide guztiak oinarri hartuta irtenbide demokratikorako proposamen bat egingo duela. Ez bakarrik Espainia eta Frantziari zuzenduta eskubide horiek onar ditzaten, «baita eragile politiko, sozial eta sindikal guztiei zuzenduta, akordiorako borondatearekin». «Ezker abertzaleak eskubideei buruz hitz egin nahi du, eskubide guztiei buruz, giza-
eskubideei buruz, lanerako eskubideei buruz, guztiei buruz», gaineratu zuen.

Bi nabardura egin zituen Batasuneko bozeramaileak. Bate-tik, irtenbide demokratikoa Euskal Herri osoan egituratu behar dela gogoratu zuen Otegi. Bestetik, irtenbide demokratikoa «proiektuetatik kanpo» utzi beharreko dinamika izan behar dela aurreratu zuen.

«Ezker nazional, anitz eta indartsua egitera goaz»


Nafarroa Behereko koordinatzaileak erronkak azaldu ditu

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Jean Claude Agerre Nafarroa Behereko koordinatzaileak Batasunak egituraketa politikoa, ekonomikoa eta soziala nolakoa izatea nahi duen azaldu zuen. Batasuna «era-kunde berria, eta berritzailea» izanen dela azpimarratu zuen. «Ezker nazionala, anitz eta indartsua eratzeraz goaz», zehaztu zuen.

Agerrearen ustez, Batasunak Euskal Herriak dituen desafioren nagusiei erantzunen die. Hori gauzatuko da ezker abertzaleak dituen helburuen alde lan eginez. «Ezker nazionala, anitz eta indartsua eratzeraz goaz, independentziaren alde lan eginez, zazpi herrialdeek osatzen duten estatua eraikiz, sozialismoaren alde eta egun nazioartean azkarrean den neoliberalismoari buru eginez, ondasunak banatuz eta berdintasuna eta elkartasunezko jendarte berria lortuz», azaldu zuen.

Kultura mailan Batasunak Euskal Herri euskal hiztuna eta eleantza landuko du. «Euskararen alde lan egingen dugu, herritar eleantzeko Euskal Herri euskalduna era-



JOXE LACALLE

Jean Claude Agerre.

tuz eta gure konpromezua sektore guztietara zabalduz», gaineratu zuen.

Helburu politikoei dagokionez, Batasunak «egiazko de-

JEAN CLAUDE AGERRE

Nafarroa Behereko koordinatzailea

«Batasuna Euskal Herri berria eraikitzeke tresna nazional gisa eratu da, zazpi herrialdeetan sostengatua»

mokrazia bultzatzeko akuitua» izan behar duela nabarmendu zuen. Ildo horretan, «Euskal Herri berria eraikitzeke tresna nazional gisa» eratu dela oharrarazi zuen. «Zazpi herrialdeetan sostengatua, hedatua eta antolatua». Beraz, «militantzia izanen da Batasunaren aberastasun nagusia» Nafarroako Behereko koordinatzailearen aburuz. Izan ere, «Euskal Herriaren aberastasun politiko, kultural eta sindikala biltzeko gai izan behar du-eta».

EZAGUT EZAZU BREIZH (BRETAGNIA) ABUZTUAK 1 - 15

- Hizkuntza, kultura, herriak, jendea, paisaiak...
- Giro jatorria eta erabat informala
- Prezio ezinhobeak
- Bidaia euskaraz burutuko da.

HARREMANETARAKO:
Kultour Bidaiak
Tfnoa: 943 29 70 25
Kultour@euskalnet.net



ENGRANAJES EGIN, S.A.

Batzar Orokor Arruntak hartutako erabakiaren arabera egoitza soziala aldatu du:

P.I. Masti-Loidi, 19 C - 20100 ORERETA

Udako Ikasturak / Bernetegiak
Curso de Verano / Bernetegiak

UDAL EUSKALTEGIAK

16 urtetik gorakoentzat

- Euskalduntze
- Alfabetatze
- EGA
- Euskaltegian
- Barnetegan

Lotsarik gabe!
¡Sin complejos!

PASAIKO UDAL EUSKALTEGIA

Euskadi Etorbidea, 61 (Anbulatorio ondoan)
20110 PASAIA - Tel.: 943 39 3318
euskal@pasaia.net

HAURTZARO IKASTOLAK

DBHko ingeles filologia titulua duen irakasle bat behar du DBH zikloan aritzeko.

Curriculum vitae emateko epea: ekainaren 28a.

Helbidea: Haurtzaro Ikastola. K/Elorondo z/g. 20180 OIARTZUN.

Tfnoa: 943491659.

Posta elek. helb.: oiartzun@ikastola.net